



EX-LIBRIS




## 1934tik 2024ra De 1934 a 2024

2024an Enkarterrietako Museoaren 90. urteurrena ospatzen gabilz. Hori dala-eta, barriro argitaratu dogu Museoari buruzko lehenengo liburuxkea, Nicolás Martínez Ortiz de Zarate artistek 1935ean diseinutakoa.

Haren arrastoei segika, Jon Mikel Bañales marrazkilaria gaztearen ilustrazio barri eta modernoa gehitu deusagu, Museoaren gaur egungo irudia eta 90 urte horreen lorratza islatu guran.

En 2024 celebramos el 90 aniversario del Museo de Las Encartaciones reproduciendo su primer folleto, diseñado en 1935 por el artista Nicolás Martínez Ortiz de Zarate.

Siguiendo su estela, añadimos una nueva y moderna ilustración del joven dibujante Jon Mikel Bañales que muestra la imagen que el Museo presenta hoy en día y el paso de esos 90 años.




ENKARTERRIETAKO MUSEOA  
MUSEO DE LAS ENCARTACIONES



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

IMPRENTA PROVINCIAL DE VIZCAYA



rain dala 90 urte bihurtu zan Abellanedako Batzar Etxea Enkarterrietako Museo. Ordurik hona, birritan inauguratu da: 1968an, Abellanedako Batzar Etxeko Museoa izenagaz –orduan emon jakon gaur egun daukan torretxe itxurea– eta 1994an, Bizkaiko Batzar Nagusien jabetzapean. Azken inaugurazio horregaz batera Enkarterrietako Museoa izena berreskuratu eban, eta erakunde moderno bihurtu zan.


Beraz, Museoak 90 urte ditu eta daborduko 30 urte iragan dira Bizkaiko Batzar Nagusiek eraikina azken aldiz zaharbarritu ebenetik. Honeek guztiak egin ziran momentu haretan: diskurtso museografiko barria abiatu, espazio barriak edegi, beste eraikin bat gehitu, lorategi barria diseinatu eta Korrejidorearen Etxea bulego-eraikin bihurtu. Ordutik ikerketak, argitalpenak eta erakusketak egiten ditugu, baita ondarea eta dokumentazioa erosi eta zaharbarritu be. Hori guztia gure programa pedagogiko zabala eta egiten ditugun kultura-, zabalkunde- eta turismo-jarduerak ahaztu barik. Enkarterri hobeto ezagutzeko aukerea emon deuskuen gai ugari jorratu ditugu, eta gai izan gara bizi dogun mundu digital barrira egokitzeko Enkarterriko, Bizkaiko eta Euskal Herriko sare kulturalagaz elkarlanean. Hori guztiori Bizkaiko Batzar Nagusien babespean egiten dogu, eta gure egitekoen artean dago babespea emoten deuskun erakunde horrek, Bizkaiko parlamentua dan aldetik, egiten dauen lanaren zabalkunde egitea be.

90 urte geroago, bisitariak aukerea dauka Enkarterri hobeto ezagutu eta lehenengo eta oraingo piezak gordetzen dituan museo barri eta modernoa ikusteko. Hortaz, garai baten gure arbasoen topagunea zanak daborduko 90 urte daroaz gure historia, ondarea, artea eta ohiturak hobeto ezagutu daiguzan laguntzen.

**E**N Avellaneda se reunía la Junta General de las Encartaciones, que dictaba sus acuerdos para el mejor gobierno de la tierra encartada. :: Allí moraba el Teniente Corregidor y tenía su Auditorio donde administraba justicia. Para mantener vivo el recuerdo de la Institución y la significación del histórico lugar, la Diputación de Vizcaya, a propuesta de su Junta de Cultura Vasca, restauró la Casa de Juntas. En ella estableció una Es-

cuela de barriada y un Museo. El visitante puede contemplar en Avellaneda un bello paisaje. :: Después, en la Casa, hallará recuerdos de la Junta, retratos de encartados ilustres, reproducciones y fotografías de torres y monumentos; manuscritos, libros, muebles y una referencia de las investigaciones de prehistoria efectuadas en Carranza. :: Verá también un artístico mapa en el que figuran los pueblos que acudían a la Junta.

El lugar y la Casa con su Museo forman un conjunto evocador, grato no sólo a los naturales de las Encartaciones, sino a todos los vizcaínos, y a los turistas que buscan para sus desplazamientos nobles y bellos motivos como los que en Avellaneda se les ofrecen. Avellaneda está situado entre Zalla y Sopuerta, en jurisdicción de este término municipal, sobre la carretera de Valmaseda a Sopuerta, en su kilómetro 6. Dista de Bilbao, por Zalla, 30 kilómetros; por Somorrostro y Sopuerta, 33 kilómetros.



ARTE - Bilbao